



Jaiek gune finkorik ez dute izan orain arte. Urtez urte festagunea aldatuz joan da. Argazkian, 1994koa.

Haur eta helduentzako gunea Txofren

Jakina denez, Zipotz jaietako ospakizun garrantzitsuenak bi lekutan egin izan dira: Txofre enparantzan eta Zuhaitzin. Auzoko alde berrian, Txofre plazan, batik bat haur eta helduentzako ospakizunak egin izan dira: dantzaldiak, antzerkia, haur jokoak, dantza emanaldia... Kontzertuen eta txosnen gunea, berriz, auzo zaharrean jarri izan da: Zuhaitzin, hain zuzen ere. Jai hotsak, hala ere, beste hainbat lekutan ere entzun ohi dira: Katalunia plazan, ohiko bihurtu den xake txapelketa egiten da; San Ignazio enparantzan, urteroko organo emanaldia; ferrialariak, berriz, Nafarroa Behera plazan egoten dira. Aurten agertoki berri bat gehituko zaio ohiko zerrendari: Zurriola pasealekua. Bertan egingo dira saltsa jaialdia eta arrantza lehiaketa.

gotan izan du buruan galdera hori.

«Jaiak sortu zirenetik arazo bera eduki dugu. Beraz, jaigune finko bat izan nahi dugu. Urteroko eskaera da», esan digu Irunek.

Udalaren jarrera, ordea, argia dago: «Arazoari behin-behineko irtenbideak ematen dizkiote», diosku Irunek. Horren arabera, jaigune finkorik ez edukitzeak kalte handia egiten die.

«Orain arte batetik bestera ibili gara: Nafarroa plaza, Sagues, Zuhaitzi... Gainera, Udalak ez du erabakitzen azken ordura arte zer egingo

laz estalki bat
ipini zuten
Katalunia plazan.
Bertan,
sagardotegi
erraldoia antolatu
zuten. Aurten,
Udalak
debekatu egin du
estalkia han
jartzea

duen jaiekin. Toki finko bat edukitzea beharrezkoa da, besteak beste tabernarien diru laguntzak jasotzeko. Jaien sakabanatze horrek kalte handia egiten digu. Hamaika oztopo aurkitzen dugu gure ahaleginean», diosku Irunek.

Estalkirik ez

Jaigunearen arazoa da handiena, baina ez da jai batzordeko kideek aurten aurkitu duten oztopo bakarra. Iaz estalki bat ipini zuten Katalunia enparantzan. Bertan, sagardotegi

erraldoia antolatu zuten. «Afarietarako lekua zen», dio Irunek.

Aurten Udalak galarazi egin du estalkia Katalunia enparantzan jartzea. Oraingoan, ezezkua idatziz jaso dute. «Susana Corcuera zinegotzia buru duen zerbitzueta sailaren idatzi bat jaso dugu. Horren arabera, ezin izango dugu estalkia Katalunia plazan jarri, bizilagunen aisialdirako leku publiko bat delako», azaldu digu Irunek.

KTEko kide Maria Jesus Torresek dioenez, ezinezkoa da horrelako toki batean

estalki bat jartzea. «Ez Katalunia plazan, eta ez ezaugarri horiek dituzten beste lekuetan ere», diosku KTEko kideak.

Laster, baimendutako lekuri aurkitu ezean, antolatzaileek ezin izango dute estalkirik ipini. Horrela gertatuko balitz, bertan egitekoak ziren hainbat ekintza bertan behera geratuko lirateke: txotx herrikoia, kantaldia, Trebeska dantza taldearen emanaldia... Musikarik eta edatekorik ez bada, afaltzekorik ez bada, izango al du jendeak ondo pasatzeko gogo?

TABERNA
URKABE
TABERNA

Segundo Izpizua, 33
943 29 18 91
DONOSTIA

BEREZITASUNAK
DIRU KUTXAK
SARRAILAK
GILTZEN FABRIKAZIOA
SEGURTASUNA

24 ORDU 907 52 33 33

EJABRETA

USANDIZAGA, 16 behea
MIGUEL IMAZ, 6 behea
20002 DONOSTIA
Tel.: 943 27 18 14 / 29 16 81
Faxa: 943 28 43 84

ARALAR
KIROLAK

Espezialistak zeregin hauetarako
materialean: goi-mendia, eskalada,
Trekking-a, arroilen jaitziera...

Marino Tabuyo, 6 - DONOSTIA - Tel.: 943 32 15 94
Laskorain, 7 - TOLOSA - Tel.: 943 65 49 16